

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza ^{info}

Ostirala, 2013ko maiatzaren 3a. IX. urtea. 2.588. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Erakundeetako ordezkariak izan ziren atzo, teknikariek in batera, Adunako hondakin uren araztegia. I. TERRADILLOS

Anoetako kiroldegiak astelehenean zabalduko ditu ateak

Hilabetez itxita egon eta gero, udalak autonomo gisa kontratatuko langileek jarriko dute martxan kiroldegiko zerbitzua **06**

Asuncion publiko egitea eskatzeko, Legebiltzarrera joko du TOPAK

Koordinakundeak eskualdeko osasun mahaia sortzeko beharra nabarmendu du, egindako balorazio agerraldian **02**

Uren araztegia inauguratu dute

Adunako hondakin uren araztegia inauguratu dute Josu Amilibia Adunako alkateak, Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusiak eta Eneko Etxeberria Ur Kontsorzioko lehendakariak **03**

'Berria'ren 10. urteurrena, Tolosan **02**



TOLOSALDEA LANBIDE HEZIKETA
INSTITUTUA



“ATE IREKIEN EGUNA”

MAIATZAK 8, ASTEAZKENA • 17:00etatik 20:00etara



Ikasle, guraso, langile,
enpresa eta interesatu
guztiei zuzendua.

Ikastetxeko baliabideak,
instalazioak eta eskaintza
ezagutzeko bisita gidatua.

Anje Duhaldek ekarriko du 'Berria'ren 10. urteurrena Tolosara, maiatzaren 17an

10 urte beteko ditu laster 'Berria'k; herriz herriko ospakizunez gain, berrikuntza prozesuan ari dira

Itzea Urkizu

2003ko ekainaren 21a zen, eta *Berria* egunkaria lehen aldiz eskuartean izan zuten hainbat euskaldunek, egun hartan. Hilabete batzuk lehenago *Euskaldunon Egunkaria* itxi zenean, euskarazko prentsan sortutako hutsunea betetzera iritsi zen *Berria*, eta hamar urteko ibilbidean, 14.000 irakurle eta laguneko sarea osatzera iritsi dira. Ospakizunek herriz herriko ibilbidea egingo dute, eta datorren maiatzaren 17an, Anje Duhalderen kontzertuak ekarriko du *Berriaren* urteurrena Tolosara.

Pasa den apirilaren 12an hasi zen herriz herriko kultur jardueren ibilbidea, eta urteurrena ekainaren 22an birbilduko dute. Andoingo Martin Ugalde kultur parkean ospatuko duten egun osoko jaian. Kulturari eskainitako emanaldi horietan guztietan, genero eta estilo askotara iritsi nahi izan dute *Berriako* antolatuzaileek, eta Anari, Ruper Ordorika, Gari, Eñaut Elorrieta, Inoren Ero Ni, Borja Estankona, Leire Gotxi, Igelaren banda nahiz Anje Duhaldek jarri dute beren alea.

Horrez gain, *Zertarako hegoak* antzezlanaren ere, *Berriaren* 10. urteurrenaren harira sorturiko lana da; *Berriaren* ekimenez, Metrokoadroka Sormen Laborategiak ondu du obra, eta herriz he-



Maiatzaren 17an kontzertua eskainiko du, Leidorren, Anje Duhaldek. HITZA

rriko ibilbidean, 12 oholtzatan taularatuko dute.

Martin Ugalde kultur parkeko jai egunean, berriz, haurrentzako ikuskizunak, bertsolariak, jandana, nahiz Petti, Napoka Iria, Morau eta Gose musika taldeen kontzertuak izango dira.

Urteurrenaren ospatzeaz haratago, ordea, *Berria* egunkariak aurrera begira pasa ditu azken hamar urteak, eta horretan dihardu gaur egun ere; hedabideak etengabeko berritze prozesuan diren honetan, hainbat berrikuntza prestatzen ari dira egunkarirako. Oraingoz, sakelako telefonoetan egunkaria irakurtzeko aplika-

zioa sortu dute, eta Ibilkari izeneko mendiari buruzko ataria ere eskuragarri da jada. Aurrera begira estilo liburuaren sarea izango dute, eta webgunea ere berrituko dute.

Garai berrietara egokitze horrek, gaur egungo 62.000 irakurle- eta web atariko 5.300.000 bisitariek osatzen duten sarea hedatzeko bideak irekiko dizkie.

Euskal rockaren iturritik

Arrangoitzetik (Lapurdi) iritsiko da Tolosara, *Berriaren* 10. urteurrenaren oihartzuna, Anje Duhalderen eskutik. Datorren maiatzaren 17an, 20:30etik aurrera, Leidor aretoan kontzertua eskainiko du euskal rockaren erreferentziatiko bat denak. Emanaldiak sarrerak, gainera, **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA** (Araba etorbidea, 5, Tolosa) egunkariaren egoitzan salgai izango dira.



Tolosaldeko osasun mahaia osatzeko deia egin du TOPAK. I.URKIZU

Legebiltzarrera joko du TOPAk, Asuncion publiko egitea eskatzeko

EH Bilduk legez besteko proposamena aurkeztu du, Osasun Sailak Invizarekin duen hitzarmena ebaluatzeko

I. Urkizu

Tolosaldea Osasun Publikoaren Alde (TOPA) koordinakundeak, Tolosaldeko alkateek Jon Darpon Osasun Sailburuarekin izandako bileraren balorazioa burutu dute, eta besteak beste, Asuncion klinika publiko egiteko eskariak ezezkoa jaso duela nabarmendu zuten, pasa den astearteko agerraldian. Horrela, beren protestak Eusko Legebiltzarrera eramateko erabakia ezagutarazi dute.

Apirilaren 3an, Gasteizen elkartu ziren Tolosaldeko lau alkate, Osasun Sailburu Jon Darponekin. Bileran, besteak beste, TOPA koordinakundeak eta eskualdeko alkateek bat eginda adostutako eskaerak eta protestak helarazi zizkioten Darponi, Asuncion eskualdeko ospitale publiko egiteko bideak irekitzeko helburuz.

«Darpon jaunaren hitzak onak izan arren, erabateko ezezkoa jaso du gure eskariak, eta Asuncion klinika ez dute publiko egiteko asmorik azaldu; TOPAk horren alde borrokan jarraituko du», nabarmendu dute.

Hasiera batean itzaropena piz-

tu zitzairen, izan ere, «aurreko sailburuak ez zuen gurekin bildu nahi izan». Hala ere, TOPA ez da gustura azaldu Darponen erantzunarekin: «Bere hitz goxoez ez gaituzte engainatzen, bere politika osasun gaietan murrizketak eta pribatizazioak egitearena delako. Orain lehen baino okerrago gaude, itxaron zerrenda handiagoak daudelako, Anbulatorioetik espezialitateak desagertzen direlako eta espezialistak ez diren medikuak espezialitateetan lanean ari direlako», salatu dute.

TOPAren ustez, «ezinbestekoa da eskualde osoaren herri mobilizazioa, eta eskualde osoko alkateen batasuna». Izan ere, auzia eskualdean bertan jorratu beharrezkotzat dute, eta «benetako lan agenda bat egitea» eskatu dute: «Data zehatzekin lan agenda bat beharrezkotzat dugu, gobernuak, udaletako, Asuncion klinikako eta koordinakundeak kideak osaturiko osasun mahaia martxan jartzeko».

EH Bildu «kezkatuta»

Legez besteko proposamena egin du EH Bildu Eusko Legebiltzarraren, «kezkatuta», Osasun Sailak Asuncion klinikako kudeatzaile Inviza S.A. enpresarekin hitzarmena berritu behar baitu.

Koalizioaren ustez, «osasun zerbitzu publikoak enpresa batekin kontzertatzeak arazo nabarmenak» sortzen ditu: «Jaurliartzak enpresaren esku uzten du zerbitzuen neurketa, eta enpresaren helburu nagusia irizpide ekonomikoaren menpe egonez gero, zerbitzua kalitatezkoa, euskalduna eta unibertsala ez izatea gerta liteke», salatu du Rebecka Ubera legebiltzarkideak.

Horregatik, legez besteko proposamenaren bidez, «Osasun Sailari bi hilabeteko epean hitzarmenaren ebaluazioa egitea» eskatu diote, helburuen betetzea, herri-tarren beharrak eta zerbitzuen kalitatea irizpidetaz hartuz. Guztia, «Asuncion publiko egiteko helburuz» egingo dute.

www.inmosalbide.com



SALBIDE
Higiezin zerbitzuak

Aia. Baserria berritu berria. 125m²-ko bi solairu ditu. 25 m²-ko terraza. Terrenoa, 110.000m². 50.000.000 pezeta.

Aizarnazabal. 3 logelako etxebizitza. Oso prezio onean. 24.500.000 pezeta.

Bergara. Askarruntz auzoa. Guztiz berritua: bi logela, diseinuzko sukaldia, berokuntza sistema gasarekin. 150.000euro!

Donostia. Amara-Amezketakalea 3 logela, 2 bainugela eta terraza. Igogailua eta gasa. Zazpigarren solairua. Izkina. Ezin hobea. 59.898.960 pezeta.


Iraeta. Etxe berria. 2 logela, terraza eta lorategia. Garaje handia. Komunitateko igerilekua. Prezio berria: 35.000.000 pezeta.

Zarautz. Azken Portu. 92m² ditu. 4 logela, terraza, trastelekua eta igogailua. Erreforma behar du. Prezio berria: 54.000.000 pezeta.

Zarautz. SALBIDE. 3 logela, 2 bainugela, terraza, trastelekua eta garaje itxia. Oso egoera onean. 75.000.000 pezeta.

Zarautz. Itxasmendi. 3 logela eta 2 bainugela. Erreforma behar du. 41.000.000 pezeta.

Bizkaia kalea, 6 · 20800 Zarautz · Tel.: 943-01 07 00 · Mug.: 665-71 85 96



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

→ **Laburrak****Entrenamendu mentalari buruzko saioak, gaurtik**

LEITZA › Urko Arozenak entrenamendu mentalari buruzko saioak emango ditu Leitzan. Gaur izango da lehena, kiroldegian, 20:00etan. Datorren ostiralean, hilaren 10ean izango da bigarrena, leku eta ordu berean. Hurrengo saioak maiatzaren 23an eta 24an izango dira.

Kilometroetako ibilbidea ezagutzeko irteera

TOLOSA › Kilometroak 2013ko ibilbidea zehaztu dute dagoeneko. Ezagutu nahi duen orok igandean izango du aukera, irteera egingo baitute. 10:00etan tren geltokitik abiatuko dira ibilbidea burutzera.

Larramendiko auzo lokalen inaugurazioa, bihar

TOLOSA › Larramendi auzoko Arkaute etxean auzo lokalak atondu dituzte eta bihar arratsaldean egingo dute inaugurazioa. 17:00etan hasiko dira haurerentzako jolasak, 18:00etan egingo da merienda eta 19:00etan luntxa izango da. Larramendi Bizirik auzo elkarteak auzotar guztiak gonbidatu ditu parte hartzera.

Ballet ikuskizuna, etzi, Zerkausiko terrazan

TOLOSA › Oriako Barandilla ballet erakustaldia izango da etzi, igandean, Zerkausiko terrazan. Tolosaldeko Udalak Gipuzkoako Dantzari Profesionalek Elkartearen laguntzarekin antolatutako emanaldian, Donostia, Andoain eta Tolosaldeko kultur tailerretako 7 urteko gorako dantza ikasleek hartuko dute parte. Barra txikia 12:00etan hasiko da, eta barra nagusia, berriz, 12:30ean.

Matematikei buruzko hitzaldiak, hilaren 7an

TOLOSA › Matematikak jorrazteko teknika eta formula berriak indartzeko asmoz bi hitzaldi antolatu ditu Tolosaldeko Goi Mailako Lanbide Heziketa Institutuak Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Datorren asteartean, hilaren 7an izango dira, Raul Ibañez EHUko Geometria eta Topografia irakaslearen eskutik. *Matematikariok herensugeak harraipatzen irakasten al dugu?* 17:15ean izango da, eta *Paseo matematiko bat hedabideetatik zehar*, 19:15ean. 943 65 11 47 zenbakira deituz edo *ikasekin@tolosaldea.com*-era idatziz eman behar da izena.

Adunako araztegia, inauguraturik

Azpiegiturak 61.000 herritarren hondakin urak garbitzen ditu, tartean Tolosaldeko 17 udalerritakoak

Iñigo Terradillos Aduna

Pasa den urteko azaroan amaitu zituzten obrak, eta orduan proba moduan hasi zen lanean. Gaur egun, ordea, %100ean martxan da Adunako Uralde hondakin uren araztegia, eta atzotik inauguraturik dago. Josu Amilibia Adunako alkatea, Eneko Etxeberria Gipuzkoako Ur Kontsorzioko lehendakaria eta Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusia izan dira inaugurazio ekitaldian. 24,5 milioi euroko kostua izan du azpiegiturak.

Araztegiak 61.000 herritarren hondakin urak garbitzea du helburu, Legorreta, Amezketa, Abaltzisketa, Baliarrain, Orendain, Ikaztegieta, Alegia, Altxo, Belauntza, Ibarra, Tolosa, Hernialde, Anoeta, Irura, Asteasu, Zizurkil, Villabona, Aduna eta Andoaingo herritarrek, hain justu, eta baita industria jatorria duten urak ere.

Araztegiaren azpiegitura guztiek 20.000 m2 hartzen dituzte. Lau eraikin nagusi daude: aurretratamendurako eraikina, lohietarako eraikina, biologikoa aireztatzeko eraikina eta kontrol eraikina, kontrol aretoa eta laborategia barne hartzen dituen. Bertara iristen den ura, prozesu osoa egin ostean, ibaira isurtzen da, eta prozesuan sortzen den lohia eta materia organikoa metano bihurtu eta erregai gisa erabiltzen da araztegiaren bertan. Zortzi behargin aritzen dira bertan lanean.

Adunakoarekin, osaturik gertatzen da Gipuzkoako araztegi nagusien sarea. Hamahiru azpiegiturekin osatzen dute sare hori. Arduradunek adierazi dutenez, araztegi hauei esker, ibaien egoerak hobera egin du azken urteotan: «Guztietan arrainak daude, eta zenbait espezie ezagun, izokina kasu, berreskuratzen ari dira». Hala ere, Gipuzkoako ibaiak Europako zuzentzaruek ezarritako kalitate on irizpideetara ez direla oraindik iritsi nabarmendu dute; beraz, saneamendu lanak egin eta udal saneamenduko sareak hobetzen jarraitzeko beharraz ohartarazi dute.

«Ura giza eskubidea da»

Josu Amilibia Adunako alkatea «gustura» agertu da azpiegitura berriarekin. Proiektuak, aurreko agintaldian, kezka sortu ziela aitortu du «balizko usain arazoengatik», orduko Aldundiak kezka



Gipuzkoako ahaldu nagusia teknikariek eta udal ordezkariak, atzo, Adunako araztegiaren it.



Araztegiaren azpiegitura guztiek 20.000 m2 hartzen dituzte. it.

■ **Bideoa.** Ikus Martin Garitano Gipuzkoako ahaldu nagusia, Eneko Etxeberria Gipuzkoako Ur Kontsorzioko lehendakaria eta Josu Amilibia Adunako alkatea, atzoko ekitaldian:

↓ **Iragarki laburrak****LAN BILA**

Etxeko lanak. Goizetan, etxeko lanak egin edota haurrak zaintzeko, emakume euskaldunak bere burua eskaintzen du. Auzo-badauka. 943 696882 / 606 521992.

GALDUTAKOAK

Txakurra. Duela 4 aste inguru, artzain txakurra galdu zen Bidegoian inguruan: arra, ile motza, beix kolorekoa eta koilare horibeltzduna. Lur izenari erantzutien dio. Deitu 606 69 473ra.



Consuelok maskara bat behar du aurpegiko giharrak mantentzeko. HITZA

Elkartasun azoka Consueloren alde

Azokaren helburua, senarrak azidoarekin aurpegia erre ondoren eskale bezala bizi den kolonbiarra laguntzea da

M. Iraola Amasa-Villabona

Consuelo Cordoba, 2001ean, senarrak azidoa bota eta 40 ebakuntzatik gora jasan ondoren, aurpegia guztiz desfiguraturata duen emakume kolonbiarra da. Maskara batez babestu beharra du bere burua, aurpegiko giharrak mantentzen laguntzeko. Egoera horretan, ezin du lanik egin, eta eskale moduan ibiltzera behartuta dago.

Consuelo ekonomikoki lagundu ahal izateko elkartasun azoka antolatuta du bihar, Hutsunea Betez

kolektiboak. Goizeko 11:00etatik 14:00etara, bigarren eskuko, baina erabilgarri dauden gauzak salduko dituzte Villabonako Berdura Plazan, hala nola, jantziak, poltsak, zapatak, liburuak, etxeko tresnak, dekorazio elementuak... Tortilla pintxoak eta sagardoa dastatzeko aukera izango da.

Horrez gain, 11:00etatik aurrera, Arantxi Padilla, EITBko Kolonbiako berriemaileak gai honen inguruan egindako bideo bat eman go da udaletxeko balio anitzeko gelan.

Azidoa, armarik gabeko legea Geroz eta gehiago dira azidoaz erretako emakumeak. Kolonbian esaterako, 150 erasora iritsi ziren 2011. urtean. India, Pakistan edo Bangladesh bezalako herrialdeetan berriz, ohikoak izaten dira.

Ekitaldi ugari antolatu dituzte maiatzerako Anoeta eta Villabonako gaztetxeek

Aiztondoko I. Gazte Topaketa ospatuko dute Villabona, Asteasu, Alkiza eta Zizurkilgo gazteek maiatzaren 18an

Mikel Iraola

Anoetako eta Villabonako Onddo Gazte Asanbladen urteurrenak direla eta, ekitaldiz jositako egitarauak antolatu dituzte datoren hilabeterako. Gaur bertan hasiko dituzte ospakizunak bi herrietan, eta hilabete amaierara bitarte luzatuko dira.

Anoetako Gaztetxeak, hamalau urte beteko ditu eta bihar ospatuko dute egun handia. Goizetik hasita, patata tortilla lehiaketa, bazkaria, bizikletaz egingo den poteoa, afaria eta kontzertuak egingo dituzte. Maiatzaren 11an emango diete amaiera urteurrenaren baitako ekitaldiei.

Aldiz, Villabonako Onddo Gaz-



Pasa den urteko tortilla lehiaketa Anoetako Gaztetxean. REBEKA CALVO

te Asanbladak, hilabeteko asteburu guztietarako ekintzak antolatu ditu. Aurtengo ezberdintasuna, Onddorock bezala ezagutua zen festivalari beste formatu bat ematea izan da, talde ezezagunei aukera bat emanaz.

Horrez gain, I. Aiztondoko Gazte Topaketa antolatu dute Onddo bera, Asteasuko Matxintxulo, Zi-

zurkilgo Txepetxa, eta Alkizako gazte asanbladak. Maiatzaren 18an ospatuko da Villabonako Bazkaria, jokoak, triki poteoa, eta kontzertuak izango dira egun horretan. Bazkarirako txartelak salgai daude Villabonako Apatx eta Iratxar, Zizurkilgo Egarrri, eta Asteasuko Patxine eta Iturri-ondo tabernetan.

↓ Egitarauak

ANOETAKO GAZTETXEA

- **Maiatzak 3.** 22:00etan barririkotea gaztetxean.
- **Maiatzak 4 (urtemuga).** Txupinazoa 12:00etan; 12:30ean, patata tortilla lehiaketa; 14:00etan, bazkaria; 18:00etan poteokleta; 21:00etan, afaria; 23:00etan, kontzertuak, Besteibe + Zirkilik bez. Gau osoan zehar tirisklasa banatuko da. Sarreara 7 euro.
- **Maiatzak 8 (ume neguna).** 17:30ean, ume jolasak eta txokolatea.
- **Maiatzak 9 (zine gaua).** Afari merienda 20:00etan, eta *Intocables* filma 21:30ean, terrazan.
- **Maiatzak 10.** Bertso saioa 22:00etan.
- **Maiatzak 11.** Kontzertuak.

ONDDO GAZTE ASANBLADA

- **Maiatzak 3.** Umeentzako pelikula Aljilbean.
- **Maiatzak 11.** Argazki lehiaketa. 10:30ean, izen ematea Errebote plazan; 11:00-13:00, herrian zehar argazkiak egiteko aukera. Hiru argazki aurkeztu ahal izango dira. Irabazleak, bi personentzako afari bat jasoko du opari gisa.
- **Maiatzak 12.** Erromeria Komizarrera. 11:00etatik irteera izango da Komizarrera Errebote plaza-tik. Han, trikitalari eta bertsolariak entzuteaz gain, pintxo eta edariak dastatzeko aukera izango da.
- **Maiatzak 25.** Goizean, haurrentzako jolasak Errebote plazan; 12:00etan, Frontenis txapelketako finala Behar-Zana pilotalekuan. 16 urtetik gorakoek

har dezakete parte. Izen ematea, onddogazteasanbladavillabona@hotmail.com helbidean egin ahal izango da; 21:00etan, bertso afaria Harituz elkargune-kideekin Berdura Plazan.

I. GAZTE TOPAKETA

- **Eguna.** Maiatzak 18.
- **Herria.** Villabona.
- **Parte hartzaileak.** Villabonako Onddo, Asteasuko Matxintxulo, Zizurkilgo Txepetxa, eta Alkizako gazte asanbladak.
- **Egitaraua.** 14:00etan, bazkaria Berdura plazan; ondoren, jokoak Aiztondoko gazteen artean; triki-poteoa 19:00etan; 21:30ean, Perdidos entre ilusiones, Wainot, Behatxe Roja, 3gabe2 eta Insnia Crew taldeen kontzertuak.

GAURKO ESKAINTZA

Mauka
berria

Hauxe da unea, Reala oparitu!

FUTBOL HOME
Estacion Kalea, 5
Irún 20301 GIPUZKOA
Tel.: 943-61 73 76
info@futbolhome.net
www.futbolhome.net

Kirol poltsa **12€**

Kirol jertsea **15€**

berria
taldea

www.mauka.eu

Elketa Jatetxea

• Elketa jatetxea
 • Elketa jatetxea
 • Elketa jatetxea
 • Elketa jatetxea

San Miguel kalera, 2 - Hernando
 443 95 21 16
 www.elketa.com

Batxilergoan eskaintza zabala du Hirukide ikastetxeak. Zientziak eta Letrak espezialitateak emateaz gain, lanbide zikloetara bideratutakoa du. Ikaslea osotasunean hezteko bere oinarri.

Hirukide, pertsona osoa heziz

Hirukide ikastetxeak eskaintza zabala du Batxilergoan. Batetik, Zientziak eta Letrak espezialitateak egin daitezke, bakoitza bere ibilbide desberdin eta anitzekin. Bestetik, lanbide zikloetara bideratutako Batxilergoa ikasi daiteke. Prestakuntza guztien ardatza argi azaldu du Garxot Agirre Bigarren Hezkuntzako zuzendariak: «Adimen anitzen proiektuaren barruan, Hirukiden pertsona osoa hezten dugu».

Zientziak eta Letrak espezialitateen bidez, unibertsitate gradu zein modulu guztietara sartzeko aukera ematen dute. «Gure ikasleek lortzen dituzten emaitzen batez bestekoekin gustura gaudu», azaldu du Agirrek. «Beti Euskadiko batez bestekoen gainetik izaten dira, bai Batxilergoan eta baita selektibitatean ere». Batxilergoa gainditzen duen ikaslearen kopurua oso altua dela nabarmendu du Agirrek. Hala, %96ak lehen saiakeran gainditzen du.

Zikloetara bideratutako Batxilergoan metodologi desberdina erabiltzen dute –jarraipen pertsonala eta eguneroko lanaren garrantzia uztartuz–, gai egokituagoak dituzte eta Batxilergoaren curriculum berdina ematen dute.

Txomin Amundarain bigarren maila egiten ari da eta garbi du Batxilergo mota hori aukeratzearen arrazoiak: «Nik garbi nuen gero zikloetara bideratuko nituela ikasketak. Ez da bestea bezain gogorra ikasketak mailari dagokionez, ikasle kopuru txikiagoa dago gelan eta giroa ere oso ona da, eta irakasleekin harreman estuagoa izaten da». Mantenuko modulu bat egiteko asmoa du Amundarainek Batxilergoa bukatzerakoan. Batxilergo mota horretako ikaskuntzaz galdetuz, eguneroko egiten den lanaren garrantzia nabarmendu du: «Ez da hainbeste azterketa bat gainditzera bideratuta dagoen jarduna, egunerokoan egiten diren lanak kontuan hartzen dira».



Batxilergoko hainbat ikasle elkarrizketa laguntzailearekin ingelesa lantzen. HITZA



Batxilergoko ikasleak Uzturre zentroan, adinekoekin solasean. HITZA

Ikaslearen beharretara

Hirukideren Batxilergoaren eskaintzak balio erantsi bat duela nabarmendu du Agirrek. Elea-niztasunari ematen zaion garrantzia, esaterako. Ingelesa lantzeko aukera dute ikasleek, bai ikasgai bat hizkuntza horretan jasoz, baita Cambridgeko azterketak presatuz. Frantsesa ikasten jarraitzeko aukera dute ere.

Teknologi berrien erabilera ere azpimarratu du Agirrek. Bestalde, beste kulturak ezagutzeko aukera dute Poloniarekin egiten den elkartrukea baliatuz. Ikasle bakoitzari bere beharretara egokitutako prestakuntza ematen diotela esan du Agirrek: «Ikasle-

kin elkarrizketa pertsonalak egin dira, bi tutore daude gela bakoitzeko ikaslearen jarraipena are pertsonalizatuagoa izateko. Ikasle ohien mahai inguruak antolatzen ditugu, hainbat hautazko ikasgai daude aukeran, marrazketa ordenagailu bidez eta zuzenbidea, esaterako».

Hirukiden garrantzi berezia ematen zaio ikaslearen parte hartzeari. Hainbat batzordetan parte hartzen dute: euskara, Agenda 21, festak... Bestetik, geletan ordezkariak dituzte, Tolosako Udalaren ekimenean parte hartzen dute, eta ikastetxearen etengabeko hobekuntzan bere iritzia aintzat hartzen da.

Mundu berri bat sortzen

Pertsona bere osotasunean hezteko bidean, Hirukideren apustuetako bat boluntariotza da. Hainbat aukera ditu ikasleak boluntariotzaren munduan lehen pausoak emateko. Batetik, Uzturre zentroan egiten diren saioak. Bestetik, begirale izateko ikastaroa egin ahal dute ikastetxean, titulua eskuratuz. Sorospen ikastaroa ere eskaintzen dute Gurutze Gorriarekin batera, baita ikastetxeo gazteagoi ikasketetan laguntzeko aukera, auzolandegietan parte hartzea, elkarbizitzak, ekainean azterketak bukatu ondoren haur eskolan boluntario izateko aukera...

Amaia Mancisidor da eskolako

eta eskolaz kanpoko boluntariotzaren koordinatzailea: «Ikastetxean DBHn bertan lantzen dugu boluntario izateko aukera. Batxilergoan zenbait ekimen zehatz eskaintzen dira. Lehen eta bigarren mailan Uzturre zentroarekin dugu harremana: lehenengo mailan Topic zentroarekin batera Esku Biziaz proiektuan parte hartzen hasi dira, eta bigarren mailan, erlijio klaseen barnean, taldea 10 orduko praktikak egiten dituzte Uzturre zentroan aiton-amona eta gaixo psikikoe-kin».

Batxilergoan boluntariotza lantzen da ikasgelan bertan: hainbat erakundek zer lantzen den ikusten dute lehen mailan, eta bigarren mailan informazio jasotzen dute Tolosaldean dauden erakundeei buruz, interesa izanez gero horietan parte hartzeko. «Ikasleek erantzun oso ona dute», dio Mancisidorrek. «Gerontologikoaren esperientzian parte hartzen duten gehienek espero ez duten zerbait aurkitzen dute eta asko gustatzen zaie».

Boluntariotzaren bitartez, ikaslearen inplikazioa bultzatzen du Hirukidek. «Belaunaldi berriak datoz eta egun gizartean ikusten ari diren hainbat gauza ez daude ondo», dio Mancisidorrek. «Boluntariotzarekin aukera bat ematen zaie gauza txikiak eginz aldaketak sortzeko».

Esperientzia horietan parte hartuz, ikaslea bera ere aldatu egiten dela esan du Mancisidorrek: «Uzturre zentroa joaterakoan, lehenengo egunean beldurtuta daude. Bertan egon ondoren, hain bitakoa gustura azaltzen dute. Bere bizi esperientziarako oso ona da, bere barnea aberastu egiten da».



SM Saldías Miguel

ASEGURUETAKO ARTEKARITZA

www.saldias-miguel.com

% 60 arteko aurrezkia

- Autoak
- Motoak
- Furgonetak
- Kamioiak
- Etxebizitzak
- Komertzioak
- Komunitateak
- Istripuak
- E.P.S.V
- Osasuna
- Inbertsioak
- etb.

Zazpiburrieta, 14 • 20200 **Beasain** • Tel.: 943 085 600
San Juan kalea, 6 • 20270 **ANOETA** • Tel.: 943 698 004
Nafarroa Etorbidea, 12 behe • 20400 **Tolosa**
Tel. 943 651 189





Hilabete eman du itxita Anoetako Abraham Olano kiroldegia. M.I.

Astelehenean berriro ere zabalik

Kudeaketaz arduratzen zen BPXsport enpresari hitzarmena bukatu ostean, hilabete eman du itxita kiroldegia

Mikel Iraola Anoeta

Hilabete bateko itxialdiaren ostean, berriro ere atek irekiko ditu Anoetako Abraham Olano kiroldegia, datorren astelehena, hila-

ren 6tik aurrera. Kudeaketa, baina, aldatu egingo da. Hemendik aurrera, udalaren esku geratuko da. Duela lau urtetatik hona, BPXsport enpresa arduratu izan da 2006. urtean inauguratu zen kiroldegiaren kudeaketaz. Ibarra, Hernani, Azpeitia edo Debako kiroldegia ere, bere gain izan ditu enpresa honek.

Aurtengo martxoaren 31an, ordea, Anoetako Udalarekin zuen hitzarmena amaitzen zitzaien, eta

pasa den urteko urrian kudeaketarekin jarraituko ez zuela jakinarazi zion udalari.

Hori dela eta, enpresei plenguak aurkeztu zizkien udalak, baina enpresa bakar bat aurkeztu zen, lehiaketara, eta ondoren atzera bota zen. Martxoaren amaiera iritsi zenerako enpresa berririk ez zegoenez, Abraham Olano kiroldegia epe baterako ixtera behartuta ikusi zen udala.

Bitarte horretan, udalak, kudeaketa bere gain hartzeko erabakia

hartu eta berriz ere atek irekiko ditu datorren astelehenean hila-beteko itxieraren ondoren.

Lehen zeuden langile berek jarraituko dute lanean, udalak autonomo gisa azpikontratatu baititu ikastaroak eman eta harrera zerbitzua eskaintzeko.

«Ahal bezain azkar ireki nahi izan dugu, eta modu horretan kontratatzea zen biderik lasterrena. Eskaintza publiko bat ireki izan beharko bagenu, kiroldegia luzaroan egon beharko litzateke itxita.

Horixe zen formularik eraginkorrena», dio Pello Estanga, Anoetako alkatea. Garbiketa lanak, berriz, udaleko langileen esku geratuko dira.

Normaltasunera itzuli nahian Astelehenetik aurrera, «normaltasunez, betiko moduan» martxan jartzea espero du udalak. «Itxi baino lehenagoko ikastaro eta irakasle gehienak mantentzeko ahaleginetan gabiltza, herrita-



Ahal bezain azkar ireki nahi izan dugu, izan ere, garrantzitsua da herriarentzat»

PELLO ESTANGA
Anoetako Alkatea

rrak oso gustura zeudela ikusita», dio Estangak.

Anoetako kiroldegia, 400 erabiltzaile inguru ditu, horietatik erdia baino gehiago, herrikoak bertakoak. «Garrantzitsua zen herriarentzat lehenbailehen kiroldegia berriro ere zabaltzea».

Herritarrei eskerrak emanaz

Bestalde, Pello Estangak eskerrak eman nahi izan dizke herritarrei denbora tartea honetan erakutsita-pazientziarengatik. «Bi batzar egin genituen herritarrei kiroldegiaren egungo goera zein zen azaldu eta gure intentzioak zein ziren azaltzeko. Euren kezka eta proposamenak entzun genituen, eta euren guri ere bai. Oso ondo ulertu dute guztia, eta ondo jokatu dute, pazientziak, eta hori eskertzekoa da», esan du alkatea.

o anoetaldea@hitza.info

Amaitzean da kaleko argiteria aldatzeko lehen fasea

Anoetako Udala, kutsadura gutxitzeko eta energia aurrezteko bonbillak aldatzen ari da azken asteetan

M. Iraola Anoeta

Kutsadura asko sortzearen ondorioz, aurrez jarrita zeuden farolak legez kanpo geratu ondoren, kaleko argiak aldatzen ibili dira azken hilabeteetan Anoetan.

Denbora luzea zeraman udalak aldaketa hau gauzatu nahian, eta lehenengo urtean hainbat proiekturen arteko aukeraketa egin ondoren, bi fasetan bereiztu zuten: lehenengo zatiak, plaza eta inguruak hartu zituen; eta bigarrenak, berriz, kanpoaldea.

Azken hilabeteetan lehenengo fasean lanean aritu ondoren, berehala amaituko dute. Plazaz gain, San Joan kalea, Solkorre eta

Igarabide pasealekuan gauzatu dituzte farola aldaketak. Eskualdeko enpresa bat arduratu da lan horietaz.

LED argiko bonbilladun farolak ezarri dituzte aurreko boladun farolen ordez. «Argi zuria botatzen dute, eta estalkia ez dutenez, gehiago argizatzen dute», dio alkatea.

Guztira, 100.000 euro inguruko kostua izan du lehen faseak, eta diru horren erdia, Aldundiak eta Energiaren Euskal Erakundeak jarri dute. Bigarren fasea finantzatu duten diru laguntzak aurkezteko lanetan da orain udala. Gastu aldetik, lehen fasearen antzekoa izango da. Laguntza horiek datorren urterako iritsiko direla aurreikusitako du udalak, beraz, iristen ez diren bitartean, ez dira bigarren faseko lanekin hasiko.

Luzera begirako inbertsioa

Pello Estangaren esanetan, «lehentasunezko» inbertsioa izan



LED bonbilladun farolak jarri dituzte plaza inguruko kaleetan. M.I.

da argiteriaren aldaketarena. «Ingurumen eta kontsumo aldetik onurak ekarriko dizkigu aldaketa honek. LED bonbillek, gutxiago kutsatzeaz gain, gutxiago kontsumitzen dute, eta energiaren kontsumoa %60 batean murriztuko

genuke. Hori ingurumenarentzat ere ona da, eta konpromiso hori daukagula argi utzi nahi dugu».

Bestalde, orain egin beharreko gastu hori, «bost edo sei urtetan amortizatuta» izango dutela adierazi du Estangak.

Atez atekoa, «gastua baino, inbertsio moduan ulertu behar da»



Atez-ateko hondakin bilketa sistema aplikatuko dute ekainetik aurrera Anoetan. Erabaki hori plazaratu zutenetik sortutako eztabaida sakonaren inguruan penatuta ageri da Pello Estanga alkatea, eta horregatik, «gastua baino, inbertsio» bezala ulertu behar dela adierazi nahi izan du:

«Argiteriarekin gertatzen den moduan, hasieran gastu bat egin beharko dugu. Baina ondoren, gehiago birziklatuko dugu, eta gutxiago gastatuko dugu hondakin horien kudeaketan eta urte batzuen baitan amortizatuta geratuko da. Beraz, bai ekonomikoki, baina batez ere, ingurumenaren alorrean, onura asko izango ditugu».

Buruz burukoari ekingo dio gaur, Abel Barriolak

Arretxe II.aren aurka ariko da; Jaunarenak, Olaizola I.ak eta Bengoetxea VI.ak ere jokatu dute

Iñigo Terradillos

Binakako Pilota Txapelketa amaiturik, buruz burukoaren txanda da orain. Urteko pilota txapelketa garrantzitsuenetakoa den honetan Leitzako lau pilotarik hartuko dute parte, Bengoetxea VI.ak, Barriolak, Olaizola I.ak eta Jaunarenak, eta azken hiruak, gainera, asteburu honetan bertan ekingo diote txapelketari.

Abel Barriolari dagokionez, A taldean egokitu da, eta Arretxe II.aren aurka egingo du, gaur, Legazpin. Gainerako hirurak C taldean daude. Asier Olaizola eta Jon Jaunarena elkarren aurka



Barriola eta Jaunarena elkarrekin bikotea osatuz, Beotibarren. E. EZEIZA

ariko dira etzi, Eibarren. Irabazleak final zortzireneko partida jokatu du Zabaletaren aurka, eta partida horretatik aterako da Bengoetxea VI.aren aurkaria final laurdenetan. Lehenengo jardunaldia biharko Gonzalez eta Urrutikoetxearen eta Beroiz eta Ezkuriaren arteko osatuko dute. Orotara 16 pilotarik jokatu dute txapelketa, eta finala ekainaren 16rako aurreikusitako dute.

Leitzan bizi den Olaizola I.ak azaldu duenez, entrenamendu ugari egin ditu, baina «eritmo falta» nabari du. Hala ere, guztia emango duela, eta «ilusio handi» dagoela adierazi du. Jaunarenaren inguruan, berriz, «oso ongi» dabilela, eta bi eskuekin «kolpe ikaragarria» duela nabarmendu du. «Oso pilotari arriskutsua eta zaila da», esan du. Aurtengo txapelketari dagokionez, edozein pilotarik egin dezakeela aurrera

txapelketan, eta urtero izaten direla ezustekoak adierazi du.

Jon Jaunarena leitzarrak pasa den urteko promozio finala irabazi zuen. Eskuetatik «pixka bat justu» dagoela adierazi du, baina ez duela prestatzeko arazorik izan. Azken batean, «sasoiko» dagoela nabarmendu du.

Migel Soroaren oroimenezkoa

I. Migel Soroa Ogiberri Pilota Txapelketako bigarren jardunaldia jokatu dute bihar, 16:30ean. Tolosako Beotibar pilotalekuan. Etorbizuneko mailan Ugalde eta Alduntzin ariko dira Mujika eta Sanchezen aurka. Elite mailan, berriz, Elezkano eta Galarzak Urbietan eta Etxamendiren aurka egingo dute.

Aiztondoko XVI. Topaketak

Bestalde, etzi, igandean, Aiztondoko XVI. Pilota Topeketen finala jokatu dute Larraulen,

10:00etatik aurrera. Aurrebenjaminen mailan, Larraul eta Alkiza izango dira aurrez aurre; benjaminetan, Aduna-Alkiza eta Zizurkil; alebinetan, Aduna eta Zizurkil; infantiletan, Aduna eta Aduna-Zizurkil; eta infantil neskek palan, Aduna-Zizurkil eta Zizurkil. Guztira 80 pilotarik hartu dute parte aurtengo pilota txapelketan.

Errebote Txapelketa

Bestalde, Behar Zana errebote taldeak Donibane Lohitzuneko Luzaz Gazte taldearen kontra jokatu du bihar, Euskal Herriko Errebote txapelketako hirugarren partida. Neurketa 16:00etatik aurrera izango da, Villabonako Plazan. Lehenengo partidaren Baigorriko Zaharre Segi taldearen kontra 13-1 irabazi zuten billabonatarrek, eta herenegun, Senperkoei 9-13 irabazi zieten Senperko plazan.

Irudia ◊ Ibarra



MARGOLARI FINARI SARIA

Satya Apeztegia ibartarrak laugarren saria lortu du Jose Luis Zumetaren omenezko Donostiako 12. Pintura Lehiaketan. Tamayo liburudendak antolatutako ekimenaren, 7 eta 8 urte bitarteko sailean lortu du saria. *Gipuzkoako Plazan udaberria* izan dute gaitzat, eta sarituen lanak hilabete osoan izango dira liburudendan bertan. HITZA

Irudia ◊



ESPAINIAKO ERREFORMAREN AURKA

Adinekoen zentroetako langileak aste osoa protestan daramate, Espainiako Gobernuaren erforma Gipuzkoako egoitzetan aplikatzeari uko egin, hitzarmen duinak sinatu eta bere horretan onartzea eskatzeko. Tolosaldeari dagokionez, To-

losako lurreamendi eta Uzturre daude greban, eta Villabonako Santiagok bat egin du mobilizazioekin. Atzo auto ilara egin zuten, eta gaur Donostian manifestazioa egingo dute. Sindikatuen arabera erantzun handia izan dute protestek. E.M.

◉ Hilberriak eta urteurrenak

ESKELAK

943-65 56 95

tolosaldean@hitza.info



VALENTINA AIZPURUA AGIRREZABALA

ANDREA

(Jose Antonio Agirrezabalaren alarguna)

Atzo hil zen, 90 urte zituela, Elizakoak eta Aita Santuaren Bedeinkapena hartu ondoren.
-Goian bego-

GUREZAKO EREDUA, IZAN ZARA AMONA
HARTUKO DUGU KONTUTAN, ZUK BIDLITAKO GUTUNA
Zure bilobak: Jon Ander, Andoni, Ane, Amaia.

Haren arimaren alde otowitz bat eskatzen dizuegu eta arren etor zaitezte-
la. GAUR OSTIRALA arratsaldeko ZAZPIETAN, Ibarra SAN BARTOLOME
parrokian izango den hiletara. Aldez aurretik, mila esker.
Helbidea: Euskalerría, 60 - 2. eskubia

OHARRA: Gorputz beldu Tolosako ORIA TANATORIOAN
egongo da, GAUR arratsaldeko 17:00ak arte.



Ibarra,
2013ko maiatzaren 3an



GOIZA	OSTARTEAK
ARRATSALDEA	LAINOTUA
BEROENA	17°
HOTZENA	12°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldean.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aitzondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Altxo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902820201**

Agurrak



Zorionak Gari!

Eutsi goiari! Osasuna, maitasuna eta askatasuna!!!



Zorionak aitatxo!

Maitasun eta irrika osoz berehala izango zaitugu ondoan!



Urte askoan!

Amair Leunda Elorza. Bihar 3 urte. Zorionak aitona, amona, izeba, osaba, Lander eta Liberen partez. Muxu potoloak!

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

●●● agurrak

Agenda

GAUR

ANTZERKIA

■ **Tolosa.** Leidor aretoan, *Publi-koari gorroto* antzerkia izango da, 20:30ean.

JAIAK

■ **Orexa.** 11:00etan, diana herriko txistulariekin, eta 12:30ean, oilar jaitziera. 13:00etan, Bertso pilota. Pilotariak: Etxeberria-Uruzola, Umeneta-San Sebastianen aurka. Botileroak: Beñat Gaztelumendi eta Jon Maia. 14:30ean, Pintxo Lehiaketa. Bazkalostean, Txiki eta Jon Plazaolaren bakarrizketak. 18:00etan, Orexa-Lizartza-Ikaztegieta eskola arteko areto futbol saioak. Ondoren, afari merienda Eneritz eta Eider trikitilariekin, eta DJ Bull.

MAIATZAK 4, BIHAR

DEIALDIAK

■ **Tolosa.** Larramendiko auzo

Farmaziak

GAUR

■ **Tolosa.** Egunekoa: Bronte, C. Korreo kalea, 20. Telefonoa: 943 67 60 13. Gauekoa: Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. Telefonoa: 943 65 46 10.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea. Telefonoa: 112.

BIHAR

■ **Ibarra.** Egunekoa eta gauekoa: Lejeune, L. Euskal Herria kalea, 46. Telefonoa: 943 67 32 74.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea. Telefonoa: 112.

ETZI

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Morant, R. Zabalarretako lorategiak, 1. Telefonoa: 943 67 38 49.

■ **Lekunberri.** Azpiroz, M. A. Aralar kalea. Telefonoa: 112.

ETZIDAMU

■ **Tolosa.** Egunekoa eta gauekoa: Bengoetxea, E. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.

■ **Leitza.** Erbiti, O. Lizarraga kalea, 7. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

lokala inaugurazio ekitaldia izango da, 19:00etan.

■ **Orendain.** Gipuzkoa Zero Zabor taldeak antolatu duen Mundumob egitasmoa hasiko da, 12:00etan, herriko plazan.

■ **Zizurkil.** Maiatza Saltsanaren barruan, Bertso eguna izango da: bertso pilota, bertso afaria eta Otaño bertso paper lehiaketako sari banaketa izango da.

JAIAK

■ **Asteasu.** 16:30ean, Mus txapelketa herrikoia. 16:30ean, txupinazioa eta Simonen jaitziera. Ondoren, duatloia hauterentzat: mendiko txirindularitza eta krosa eta haur jolasak. 19:00etan, haurrentzat zezen txiki eta poneyak. 20:30ean, herri afaria erretore etxean. 23:00etan, erromeria, Ansorregi, Larrañaga eta Lutxurdiorekin. Goizaldera, txokolatea.

■ **Orexa.** 11:00etan, umeen udaberriko pilota topaketa. 16:30ean, ume jolasak eta puzgarriak. 19:30ean, batukada emanaldia herrikoen eskutik.

21:00etan, Herri afaria, eta ondoren, La Jodedera eta DJ Bull.

ZINEMA

■ **Tolosa.** *Oblivion* filma eskainiko dute, Leidoren, 22:30ean.

MAIATZAK 5, ETZI

DEIALDIAK

■ **Aduna.** Aiztondoko Herrira-k antolatuta Elkartasun Eguna ospatuko dute: 09:00etan, lkurriaren margotzea; 11:00etan, hamaiketako Txulobi elkartearen, eta 11:30ean, prentsaurre-

koa egingo dute. 12:00etan, pilota partidak eta 13:00etan, ekitaldi nagusia. Jarraian, herri bazkaria. 16:00etan, umeentzako jolasak eta 18:00etan, VII. Gorostidi Harria jokatuko da. 19:00etan, poteo alaitua.

■ **Ibarra.** Ibarrako plazan, Gipuzkoa Zero Zabor taldearen mundumob egitasmoa izango da, 12:00etan.

■ **Zizurkil.** Andatza Eguna ospatuko dute.

JAIAK

■ **Asteasu.** 11:30ean, Meza Santa Kruz ermitan. Ondoren, hamaiketako eta toka txapelketa, Laja eta Mikel trikitilarien doinuek lagundurik. 17:30ean, herri kirolak: Lapazaran Iparraldeko jokoak (lasto altxatze, lasto jaurtiketa, ingudea...) eta Jagoba Otaegi harri-jasotzailea. Jarraian, Laja eta Mikel, eta 20:00etan, Simonen igoera egingo dute. Bukatzeko, Laja eta Mikel ariko dira.

■ **Orexa.** 12:30ean, Ozenki Tolosako txistularien emanaldia. 17:30ean, Lizartzako Otsolar dantza taldearen emanaldia, eta ondoren, sagardo dastatzea ISK&Bila txarangak alaiturik. 19:30ean, bertso saioa: Julio Soto, Alaia Martin, Aitor Mendiluze eta Sustrai Kolina. Ondoren, festa amaiera eta oilararren igoera.

■ **Tolosa.** 17:00etan, *Oblivion* filma eskainiko dute, Leidoren. 19:30ean eta 22:00etan, berriz, *Tesis sobre un homicidio* eskainiko dute.

